

LAN TALDEAREN BILERA	
DATA: 2025.03.10	BILERA ZENBAKIA: 3
ORDUA ETA LEKUA: 17:30tan Itsasondoko Udalean	
PARTEHARTZAILEAK: Bihotza, Elena, Mikel, Jone, Maddi, Erkuden, Ainhoa, Pili, Rosario, Maider.	

EGINDAKO LANAREN LABURPENA

LANDUTAKO GAI ORDENA

ETXEBIZITZA ETA IRISGARRITASUNA ITSASONDON


Farapirekin batera egindako lanari esker, Ongizate batzordean, plan estrategikoa garatu genuen gai honi dagokionean. Azterketa baten beharra baloratu eta Geslan enpresaren eskutik lanketa hasi genuen. Geslanek diagnostikoaren emaitzak zinegotzi taldean aurkeztu zituen. Zinegotzien proposamena izan zen, emaitzak eskutan, etxebizitza eta irisgarritasun gaia lantzeko Hirigintza eta Ongizate batzordeen elkarlana.

Geslanek diagnostikorako demografiaren azterketa egin du, etxe hutsen balorazioa eta irisgarritasuna. Mikelek (arkitektoak) azken gai honi heldu dio eta azterketa sakonagoa egin du. Ongizate bilera honetan dokumentu horren berri eman digu bertaratu garen guztioi.

Proposamena: udalak garatuko lukeen aurreproiektua. Bertan, besteak beste, etxebizitza konkretu bat irisgarriagoa izateko jarraitu beharreko pausuak definituko lirateke; kasuan kasuko proposamen ezberdinak landuta, eta arlo batzuk ahalik eta zehatzen azalduta, aurrekontua, epeak, dirulaguntza posibleak, etabar. Aurreproiektua nola finantzatu aztertuko dugu.

Mediazioa kontratatzea baloratuko litzateke, bizilagunen artean adostasunak lortze aldera. Era berean, horrelako zerbitzua beste kasu batzuetan baliagarria litzatekela baloratu da (IT lanak atzeratuta adib). Mahai gainean kooperatiba ezberdinen izenak jarri dira: Juntura, Hiritik at. Eta Ongizate batzordetik hauekin harremanetan jartzeko asmoa adierazi dugu.

- ETXEEKO- LANAK / ARDURAK	NOIZKO?	ZEINEK?
Kooperatiba ezberdinekin harremanetan jarri		Ongizate



Aurreproiektuetarako aurrekontuak eskatu		Mikel
HURRENGO BILERA		
Apirilaren 7a, 17:30tan udaletxean		